

EXCERPTA

11. zenbakiaren

GEHIGARRIA

1987-apirila

Sanctus Cyprianus

QVOD IDOLA

DII NON SINT

latin-grekozko idazleen
itzulpen-ikerketa lanak

Jon Gotzon Etxebarria-Gernika



200. urte inguruan jaio zen, Kartago-n dirudienez. Etxe oneko semea, jentila, erretorikan ikasia eta jakituri zabalekoa.

246. urtean edo kristau sinesmenera etorria. Laster apaiztu eta bizpahiru urte geroago Kartago-ko gotzain aukeratua. Garai txarrean su eta gar aritu zen Elizaren alde. Dezio-ren jazarraldian iheska libratu zen. Asko eta asko makurtu ziren agintarien nahi etara. Hortik sortu zen eztabaida latza berriro Elizaren magalera bihurtu gura zutenekin. "De lapsis" entzutetsua idatzi zuen orduan.

Bere idazlanengatik eta bere bizitza eta martirioagatik izen handia lortu zuen behingoan eliztarren artean. Jeronimo eta Agustin santuek haren aipamen zehatzak eta ederrak dagizkitez. Haren diakono Ponziok "Vita Caecilii Cypriani" idatzi zuen, lagun minak izan bait ziren. Aureli Prudentzi Klemente olerkari handiak badu 106 nerrotitez osotutako goratzarre bat: Passio Cypriani.

258. urteko irailaren 14an lepoa moztu zioten. Martiri-agiriak (Acta proconsularia) osorik heldu zaizkigu. Hortik ikus genezake nolako kristaua zen gizon bikain-gogotsu hura, beste afrikar sutsu baten liburuak egunero irakurtzeko, "da magistrum" (ekar maisua) esaten zuena (Hier. De vir. ill. c. 53).

Dezio-ren jazarpenean ezkutaturik egon zen urtebete baino gehiago, bere gordelekutik eskutitzez enpara kristauak adoretzen zituelarik; askok eta askok huts egin zuten, apaizek ere bai.

Hurrengo erasoaldia Baleriano-rena izan zen. Zipriano-k amore eman gura ez; epaikariek, orduan, erlijio erromatarraren zeremonietan parterik hartu nahi ez zuelako Kurubis aldera erbesteratu zuten. Eta beste apaiz lagunak salatu zitzaala, gainera, ea nortzu ziren. Zipriano-k gogor ezetz.

Kurubis hortan (Kartago-ko hego-ekialdean dagoen herrian) inguruko kristauak oro adoretu, bere azkenengo ondasunak saldu eta behartsuei emanaz gainera, mehatzetara zigortuta zeudenak kemenez sendotu gura eskutitzak eta diru-laguntza ere bidaltzen zizkien.

Kartago-ko bere lorategia saldua zuen behartsuei lagundu beharrez; bere miresle batek atzera eskuratu zion, baina. Haraxe deitu zuen prokontsulak ekaitza areagotu zenean. Zipriano burua entrega baino lehen ezkutaturik egon zen, beste kristauekin zer egin zehatz erabaki arte,

Azkenean, epaiketan erromatar jainkoei oparirik eskaini nahi ez eta lepoa mozturik hiltzeko agindua eman zuten. Borrerua etorri zenean, hogeitabost urrezko txanpon hari emateko agindu zien beretarrei. Hil ondoren kristauek gorpua batu eta hilobiratu egin zuten. Haren hilobi ondoan San Agustin-ek egin zuen hitzaldia askotan fededunen aurrean.

- Erretorika-ikasketak eginiko gizonak, kristau egin eta gero, bere idazkietan ez du behin ere aipatzen idazle paganorik. Harritzekoa, zinez. Beste idazleek sarri egiten bait zuten; gogora Agustineta Jeronimo santuak, besteak beste, idazle paganoen aipamen ugarien egileak.

Punica terra tulit, quo splendet omne, quidquid us-
[quam est, :
inde domo Cyprianum, sed decus orbis et magistrum.
Est proprius patriae martyr, sed amore et ore noster,
incubat in Lybia sanguis, sed ubique lingua pollet,
sola superstes agit de corpore, sola obire nescit,
dum genus esse hominum Christus sinet et uigere mun-
Dum liber ullus erit, dum scrinia sacra litterarum, [dum.
te leget omnis amans Christum, tua, Cypriane, discet.

(Aureli Prudentzi Klemente: PERISTEPHANON, XIII; vv: 1-8)

- Nafarroa-ko Aiegi herrian irailaren 16an ospatzen da herriko zaindari San Zipriano-ren jaia. Eta hantatik hurbil dagoen Montejurra-ko gailurrean badu santu honek bere ermita.

ZIPRIANO SANTUAREN IDAZLANAK

APOLOGETIKOAK

Ad Donatum
 Quod idola dii non sint
 Ad Demetrianum
 Ad Fortunatum
 Testimonia ad Quirinum

AHOLKU-
IRAKASPENekoAK

De lapsis
 De catholicae Ecclesiae unitate
 De mortalitate
 De habitu virginum
 De dominica oratione
 De opere et eleemosynis
 De bono patientiae
 De zelo et livore

Eskutitzak(81)

IDAZKIAREN GAIEN AZALPENA

- 1.-Erregeak hil ondoren gurtu eta irudikatuak; azkenean jaungoikotzakoak.
- 2.-Erromatar jainko batzuren bizitza-gorabeherak.
- 3.-Herri guztietan jainko ezberdinak. Jainkoen azkaziaren azkena.
- 4.-Erromatarren jainko batzu eta euron izenen etimologiak.
- 5.-Erresumen zitalkeriazko sortze-bukaerak.
- 6.-Demonak direla eta, Sokrates, Platon eta aipatzen.
- 7.-Gogo gaiztoen ekintza txarrak. Deabrudunen sendaketa. Exorzismoak.
- 8.-Jaungoiko bakarra, munduaren egile eta eragile.
- 9.-Jaungoikoa zentzumenen bidez ezagutezina, leku orotan dena. Jaungoikoa gure baitan.
- 10.-Kristo-ren salbazio-etorrera.
- 11.-Jaungoikoa gizon egina Ama Birjinarengan, Espiritu Santuaren eraginez. Iragarleek aurretiaz esana.
- 12.-Judeguek euren bekatuz Jaungoiko gizon egina ezagutu ez.
- 13.-Jesus-en mirariak. Judegu sinesgogorrak.
- 14.-Jesus-en heriotza, biztuera, agerpenak eta igokundea. Azken etorrera. Ikasleak Berri Onaren zabaltzaile.
- 15.-Ikasleen aitorpen-martirioak. Kristo dugu lagun, eredu eta helburu.

QVOD IDOLA DII NON SINT

1. Deos non esse quos colit vulgus hinc notum est. Reges olim fuerunt, qui ob regalem memoriam coli apud suos postmodum etiam in morte coeperunt. Inde illis instituta templa, inde, ad defunctorum uultus, per imaginem detinendos expressa simulacra et immolabant hostias et dies festos dando honore celebrabant. Inde posteris facta sunt sacra, quae prima fuerant adsumpta solatia; et uideamus an stet haec apud singulos ueritas.

2. Melicertes et Leucothea praecipitantur in maria et fiunt postmodum maris numina, Castores, alternis moriuntur ut uiuant, Aesculapius ut in deum surgat, fulminatur, Hercules ut hominem exuat Oetacio ignibus concrematur. Apollo Admeti pecus paut, Laomedonti muros Neptunus instituit nec mercedem operis infelix structor accepit. Antrum Iouis in Creta uisitur, et sepulcrum eius ostenditur, et ab eo Saturnum fugatum manifestum est. Inde Latium de latebra eius nomen accepit. Hic litteras imprimere, hic signare nummos in Italia primus instituit: inde aerarium Saturni uocatur, et rusticitatis hic cultor fuit; inde ferens falcem pingitur. Hunc fugatum hospitio Ianus exceperat; de cuius nomine Ianiculum dictum est et mensis Ianuarius institutus est. Ipse bifrons exprimitur, quod in medio constitutus annum incipientem pariter et recedentem spectare uideatur. Mauri uero manifeste reges colunt nec ullo uelamento hoc nomen obterunt.

3. Inde per gentes et prouincias singulas uaria deorum religio mutatur, dum non unus ab omnibus deus colitur, sed propria cuique maiorum suorum cultura seruatur. Hoc ita Alexander Magnus insigni uolumine ad matrem suam scripsit metu suae potestatis proditum sibi de diis hominibus a sacerdote secretum, quod maiorum et regum memoria seruata sit. Inde colendi et sacrificandi ritus inoleuerit. Si autem aliquando dii nati sunt, cur non hodieque nascuntur? nisi si forte Iupiter senuit, aut partus in Iunone defecit.

4. Cur uero deos putas pro Romanis posse, quos uideas nihil pro suis aduersus eorum arma ualuisse? Romanorum enim uernaculos deos nouimus. Est Romulus perierante Proculo deus factus, et Picus, et Tiberinus, et Pilumnus, et Consus, quem Deum fraudis uelut consiliorum deum coli Romulus uoluit, postquam in raptum Sabinarum perfidia prouenit. Deam quoque Cloacinam Tatius et inuenit et coluit, Pauorem Hostilius atque Pallorem. Mox a nescio quo Febris dedicata et Acca et Flora meretrices. In tantum uero deorum uocabula apud Romanos finguntur, ut sit apud illos et Viduus deus, qui anima corpus uiduet, qui quasi feralis et funebris intra muros non habetur, sed foris conlocatur et nihilominus, quia extorris factus, damnatur potius Romana religione quam colitur. Est et Scansus ab ascensibus dictus et Forculus a foribus et a liminibus Limentius et Cardea a cardinibus et ab orbitatibus Orbona. Hi dii Romani. Ceterum Mars Thracius et Iupiter Creticus et Iuno uel Argiua uel Samia uel Poena et Diana Taurica et deorum mater Idaea et Aegyptia portenta, non numina: quae utique si quid potestatis habuissent, sua et suorum regna seruassent. Plane sunt apud romanos et uicti penates, quos Aeneas profugus aduexit: est et Venus calua, multo hic turpius calua quam apud Homerum uulnerata.

5. Regna autem non merito accidunt, sed sorte uariantur. Ceterum

imperium ante tenuerunt et Assyrii et Medi et Persae: et Graecos et Aegyptios regnasse cognouimus. Ita uicibus potestatum, Romanis quoque, ut et ceteris imperandi tempus obuenit. Ceterum, si ad originem redeas, erubescas. Populus de sceleratis et nocentibus congregatur, et asylo constituto facit numerum impunitas criminum: nunc, ut rex ipse principatum habeat ad crimina, sit Romulus parricida, adque, ut matrimonium faciat, rem concordiae per discordias auspicatur. Rapiunt, feroiunt, salunt ad copiam ciuitatis augendam: nuptiae sunt illis, rupta hospitii foedera et cum soceris bella crudelia. Est et gradus summus in Romanis honoribus consulatus. Sic consulatum coepisse uidemus ut regnum: filios interficit Brutus ut crescat de suffragio sceleris commendatio dignitatis. Non ergo de religionibus sanctis nec de auspiciis aut auguriis Romana regna creuerunt, sed acceptum tempus certo fine custodiunt. Ceterum et Regulus auspicia seruauit, et captus est, et Mancinus religionem tenuit, et sub iugum missus est. Pullos edaces Paulus habuit, et apud Cannas tamen caesus est, C. Caesar ne ante brumam in Africam nauigia transmitteret, auguriis et auspiciis renitentibus spreuit: eo facilius et nauigauit et uicit.

6. Horum autem omnium ratio est illa, quae fallit et decipit et praestigiis caecantibus ueritatem stultum et prodigum uulgus inducit. Spiritus sunt insinceri et uagi, qui, posteaquam terrenis uitiis immersi sunt, et a uigore caelesti terreno contagio recesserunt, non desinunt perditum perdere et deprauati errorem prauitatis infundere. Hos et poetae daemonas norunt Socrates instrui se et regi ad arbitrium daemonis praedicabat, et magis inde est ad perniciosam uel ludicram potentatum; quorum tamen praecipuus Ostanus et formam ueri Dei negat conspici posse, et angelos ueros sedi eius dicit assistere. In quo et Plato pari ratione consentit, et unum Deum seruans, ceteros angelos uel daemonas dicit. Hermes quoque Trismegistus unum Deum loquitur, eumque incomprehensibilem atque inaeestimabilem confitetur.

7. Hi ergo spiritus sub statu et imaginibus consecratis delitescunt, hi afflatu suo uatum pectora inspirant, extorum fibras animant, auium uolatus gubernant, sortes regunt, oracula officiant, falsa ueris semper inuoluunt, nam et falluntur et fallunt, uitam turbant, somnos inquietant, irrepentes etiam spiritus in corporibus occulte mentes terrent, membra distorquent, ualetudinem frangunt, morbos lacescunt, ut ad cultum sui cogant, ut nidore altarium et rogis pecorum saginati remissis, quae constrinxerant, curasse uideantur. Haec est de illis medela cum illorum cessat iniuria; nec aliud illis studium est quam a Deo homines auocare et ad superstitionem sui ab intellectu uerae religionis auertere, et cum sint ipsi poenales, quaerere sibi ad poenam comites, quos ad crimen suum fecerint errore participes. Hi tamen, adiurati per Deum uerum a nobis statim cedunt et fatentur et de obsessis corporibus exire coguntur. Videas illos nostra uoce et oratione maiestatis occultae flagris caedi, igne torreri, incremento poenae propagantis extendi, sculpare, gemere, deprecari, unde ueniant et quando discedant, ipsis etiam qui se colunt audientibus confiteri; ut uel exsiliant statim, uel euanescant gradatim, prout fides patientis adiuuat aut gratia curantis aspirat. Hinc uulgus in odium nostri nominis cogunt, ut nos odisse incipiant homines antequam nosse, ne cognitos aut imitari possint aut damnare non possint.

8. Unus igitur omnium Dominus est Deus: Neque enim illa sublimitas potest habere consortem, cum sola omnem teneat potestatem. Ad diuinum imperium etiam de terris mutuemur exemplum. Quando unquam regni societas aut cum fide coepit, aut sine cruore desiit? Sic Thebanorum germanitas rupta, permanens rogis dissidentibus etiam in morte discordia. Et Romanos geminos unum non capit regnum, quos unum uteri cedit hospitium. Pompeius et Caesar affines fuerunt, nec tamen necessitudinis foedus in aemula potestate tenuerunt. Nec hoc tu de homine mireris, cum in hoc omnis natura consentiat. Rex unus est apibus, et dux unus in gregibus, et in armentis rector unus: multo magis mundi unus est rector, qui uniuersa quaecumque sunt uerbo iubet, ratione dispensat, uirtute consummat.

9. Hic nec uideri potest, uisu clarior est; nec comprehendi, tactu purior est; nec aestimari, sensu maior est; et ideo sic eum digne aestimamus deum, dum inaestimabilem dicimus. Quod uero templum habere possit Deus, cuius templum totus est mundus? et cum homo latius maneat, intra unam aediculam uim tantae maiestatis includam? In nostra dedicandus est mente, in nostro consecrandus est pectore. Nec nomen Deo quaeras; Deus nomen est illi. Hic uocabulis opus est ubi propriis appellationum insignibus multitudo dirimenda est: Deo, qui solus est, Dei uocabulum totum est. Ergo unus est, et ubique totus diffusus est. Nam et uulgus in multis Deum naturaliter confitetur, cum mens est anima sui auctoris et principis admonetur. Dicit frequenter audimus, *O Deus, et Deus uidit, et Deo commendo, et Deus mihi reddet, et Quod uult Deus, et Si Deus dederit*. Atque haec est summa delicti, nolle agnoscere quem ignorare non possis.

10. Quod uero Christus sit, et quando per ipsum nobis salus uenerit, sic est ordo, sic est ratio. Iudaeis primum erat apud Deum gratia. Sic olim iusti erant, sic maiores eorum religionibus obediebant. Inde illis et regni sublimitas floruit et generis magnitudo prouenit. Sed illi indisciplinati postmodum facti, et fiducia patrum inflati, dum diuina praecepta contemnunt, datam sibi gratiam perdidērunt. Quam uero fuerit illis profana uita, quae contracta sit uiolatae religionis offensa, ipsi quoque testantur qui, etsi uoce tacent, exitu confitentur. Dispersi et palabundi uagantur; soli et caeli sui profugi per hospitia aliena iactantur.

11. Necnon Deus ante praedixerat, fore ut uergente saeculo et mundi fine iam proximo, ex omni gente et populo et loco cultores sibi adlegeret Deus multo fideliores, qui indulgentiam de diuinis muneribus haurirent, quam acceptam, Iudaei contemptis religionibus, perdidissent. Cuius igitur gratiae disciplinaeque arbiter et magister sermo et filius Dei mittitur, qui per prophetas omnes retro illuminator et doctor humani generis praedicatur. Hic est uirtus Dei, hic ratio, hic sapientia eius et gloria. Hic in uirginem illabatur, carnem Spiritus sanctus induitur, Deus cum homine miscetur. Hic Deus noster, hic Christus est, qui mediator duorum, hominem induit, quem perducatur ad Patrem. Quod homo est, esse Christus uoluit, ut et homo possit esse quod Christus est.

12. Sciebant et Iudaei Christum esse uenturum. Nam hic illis semper, prophetis admonentibus, annuntiabatur. Sed significato duplici eius aduentu, uno qui exercitio et exemplo hominis fungeretur, altero qui Deum fateretur, non intelligendo primum aduentum, qui in passione praecessit occultus, unum tantum credunt qui erit in potestate manifestus. Quod autem hoc Iudaeorum populus intellegere non potuit, delictorum meritum fuit: Sic erant sapientiae et intellegentiae caecitate mulcati, ut qui uita indigni essent, haberent uitam ante oculos nec uiderent.

13. Itaque cum Christus Iesus secundum a prophetis ante praedicta, uerbo et uocis imperio daemonia de hominibus excuteret, paralyticos restringeret, leprosos purgaret, illuminaret caecos, claudis gressum daret, mortuos rursus animaret, cogeret sibi elementa famulari, seruire uentos, maria obedire, inferos cedere, Iudaei, qui illum crediderant hominem tantum de humilitate carnis et corporis, existimabant magum de licentia potestatis. Hunc magistri eorum atque primores, hoc est, quos et doctrina ille et sapientia reuincebat, accensi ira et indignatione prouocati, ut postremo detentum Pontio Pilato, qui tunc ex parte Romana Syriam procurabat, traderent, crucem eius et mortem suffragiis uiolentis ac pertinacibus flagitarent.

14. Hoc eos facturos et ipse praedixerat, et prophetarum omnium testimonium sic ante praecesserat, oportere illum pati, non ut sentiret mortem, sed ut uinceret; et cum passus esset, ad superos denuo regredi, ut uim diuinae maiestatis ostenderet. Fidem itaque rerum cursus impleuit. Nam et crucifixus praeuento carnificis officio, spiritum sponte dimisit, et die tertio rursus a mortuis sponte surrexit. Apparuit discipulis suis talis ut fuerat, agnoscendum se uidentibus praebuit simul iunctus et substantiae corporalis firmitate conspicuus, ad dies quadraginta remoratus est, ut de eo ad praecepta uitalia instrui possent, et discerent quae docerent. Tunc in caelum circumfusa nube sublatus est, ut hominem quem dilexit, quem induit, quem a morte protexit, ad Patrem uictor imponeret, iam uenturus, e caelo ad poenam diaboli et ad censuram generis humani ultoris uigore et iudicis potestate; per orbem uero discipuli magistro et Deo monente, diffusi praecepta in salutem dare, ab errore tenebrarum ad uiam lucis adducere, caecos et ignaros ad agnitionem ueritatis oculare.

15. Ac, ne esset probatio minus solida et de Christo delicata confessio, per tormenta, per cruces, per multa poenarum genera temptantur. Dolor, qui ueritatis testis est, admouetur ut Christus Dei Filius, qui hominibus ad uitam datus creditur, non tantum praeconio uocis, sed et passionis testimonio praedicaretur. Hunc igitur comitamur, hunc sequimur, hunc habemus itineris ducem, lucis principem, salutis auctorem, caelum pariter et Patrem quaerentibus et credentibus pollicentem. Quod est Christus erimus Christiani, si Christum fuerimus secuti.

IDOLOAK JAUNGOIKO EZ DIRELA

1.-Lagunabarrak haintzakotzat dauzkanak ez direla jaungoikoak, horra nola den ezagun. Hasieran erregeak izan ziren, euren erregetza zela eta, euren artean, hil eta gero gurtzen hasiak. Geroago jauretxeak egin zizkieten; ondoren haien irudiak ere egin zituzten, irudien bidez hildakoen aurpegikera irararazteko. Opariak eskaini eta jai-egunak egiten ere zituzten haien omenez. Horretara, lehenengoentzat atsegingarri zena gerokoentzat gurgarri gertatu zen. Irakus dezagun bakoitzari hala gertatu zaionentz.

2.-Melikertes eta Leukotea, beren buruak itsasora bota eta gero itsas-jainkoak bilakatu ziren. Kastor anaiak txandaka hiltzen dira bizi ahal izateko. Eskulapio oineztarriak jo, jainko bezala agertzeko. Herkules, gizentasuna erantziteko, Oetakio-suak errea. Apolo-k Admeto-ren aberiak bazkatzen ditu. Neptunok Laomedonte-ri harresiak jasotzen dizkio eta gizagaizoak ez du egindakoaren saria hartzen. Kreta-n Jupiter-en hartzuloa ikus daiteke eta bere hilobia Agirian da. Saturno, berriz, hark ihes eragina dela gauza agerikoa da. Latium-ek bere ezkutalekutik hartu zizun izena. Beronek lehenengoa agindu zuen Italian idaztea eta txanponak egitea. Hortik Saturno-ren dirugintza izena. Larrak ere beronek landu zituen eta horregatik margozten dute igitaiak eskuan duela. Ihesian Jano-k hartu zuen arrotz eta bere izenagatik Janikulo izena sortu eta urtarrila horrexegatik jarria izan zen. Bi bekokidun agertzen dute, erdian jesarrita bai bait dirudi doan urteari eta datorrenari ere begira dagoela. Mairuek, aldiz, euren erregeak gurtzen dituzte ezetariko estali-nahiez ibili gabe.

3.-Gero eskualde eta herri bakoitzean jainko horiekiko gurtza era askotara agertu ohi da. Guztiek ez bait dute jainko bakarrik gurtzen, baizik eta bakoitzak antxinakoengandiko gurtza du beretzat. Hori zela eta, Alejandro Handiak bere gutun jakingarrian diotsa bere amari apaiz batek bere ahalmenaren beldurrez jainko-gizonekiko ezkutukia azaldu ziola, aspaldikoen eta erregeen oroitzak gorde behar zela, alegia. Baita horregatik ere hasi zirela gurtza eta opariak eskaintzea. Alabaina, antxina baten jainkoak jaio baziren zergatik gaur ez? Edo Jupiter zahartu egin da eta Juno-k haurrak sortzeari utzi dio.

4.-Eta nondik uste behar duzu jainkoek erromatarren alde zer edo zer egingo dutela, haien izkiluen aurka beretarren alde ezin bazuten? Ezagunak ditugu erromatarren jatorrizko jainkoak. Prokul-en zinez, Erromulo delako bat jainkoa bilakatu da. Eta Piko, Tiberino, Pylum eta Konso. Eta honako hau, iruzurraren jainkoa, Erromulo-k nahi zuen aholkuaren jainkotzat gurtzea, sabindar emakumeak maltzurkeriz bereganatu zituen ezkerostik. Tazio-k, oster, Kloatina jainkosa asmatu eta gurtu zuen. Eta Hostilio-k Paboren eta Paloren. Gero, ez dakit nork, Sukarra, Aka eta Lorea emagalduek gurtu zituen. Erromatarren artean jainkoen izenak haubesterainokoak ziren, Alargun izeneko bat ere bazen haien artean, soina gogoarekiko alargun egin zuena. Izugarria eta iluna, ez dute harresien barruan ipintzen, kanpora ateratzen baizik eta, beraz, aterea izan zen eta, erromatar jaiarak gurtua baino gehiago galduta. Eskanso beste bat, harmailak zirela eta: beste bat Phorkulo atekikoa; Limentio bestea, atariengatik. Kardea ere bada, orpoengatik eta baita Orbona ere, umezurtzak direla eta. Horra jainko erromatarrenak. Bestalde, Trazia-ko Marte, Kreta-ko Jupiter, Argos-ko edo Samia-ko Juno, edo Kartago-koa, Diana Taurikarra, Idea jainkoen ama eta Egipto-ko beste agerketak ez dira jainkoak. Ahalmenik edukiz gero, beren eta beretarren erreinuak gorde zituzketen. Orobat erromatarren artean Penateak dituzte, Eneas-ek, ihesi zihoala, ekarriak. Eta Benus soila, buru-soila delako hemen askoz ere motzagoa Homerorenean zauriengatik baino.

5.-Erreinuak, bestalde, ez dira legez sortzen, baizik zoriz edo patuz aldatzen. Lehenengotan agintea Asiritarrek, Meditarrek eta Persiarrek ukan zuten. Grekoak eta Egiptotarrak ere nagusitu ziren, orobat. Honela, aginteen joan-etorrietan, erromatarrei ere aldia etorri zitzaion. Baina, lehen aldiatar jo eta lotsatzekoa da. Gaizkile eta gizatarren artean batu zuten lagunartea. Eta babesgarri gertatu bait zen, gaizki eginaren zigorrik ezaz handiagotu egin zen. Eta erregea gaizkiaren buruzagi zedin, Erromulo aitaren hiltzaile izan zen. Eta ezkondu ahal izateko, bake-aldia nahaspil batekin hasten du. Lapurretan, zapalketan eta iruzurretan nahasten dira herritarren kopurua gehiagotzeko. Ezkondu egiten dira, arrotz-legea hautsi, eta aitagarrebarekin gudaketa gogorrean sartzen dira. Erromatarrentzat ohorerik handiena kontsulgoa

da. Kontsulgoa erregetza bezala hasi zela dakusagu. Bruto-k semeak hiltzen ditu, gaizkiaren laguntzaz o hore hura bikainago dadin. Erromaren agintea, beraz, ez zen hazi erlijio doneari edo igarpen edo aztikeriari eskerrak, egokitu zaien aldia ongi gordez bai zik. Bestalde, Erregulo aztikeriari jarraituki atxilo hartua izan zen. Manzano-k, aldiz, erlijioarekikoa bete zuen eta hala eta guzti ere uztarpetua izan zen. Paulo, oilasko jatunen aztikeria gorabehera, Kanasen hil zen. Zesar iragarpen eta aztikeriek ontzidia Afrika-ra negutea baino lehen igor ez zezan lotuerazi arren, ezetsi zituen eta are erraztasun handiagoz itsasoratu eta garaile irten zen.

6.-Hona gauza guztion arrazoi edo azalpena: egia esaltzen duten harrigarri gezurrezkoekin liluratu eta atzipeturik herri xehea, leloa eta sineskorra da eta, iruzurpean jausten da. Badaude gogo alderrai eta itxurati batzu, lurreko irrirts-grinetan murgildu, zerutikako adorez lur-kutsuaz erantzi eta gero, eurak galduak bait dira besteak galtzeari ekiten diote, eta gaiztotu egin dira eta, besteei gaizkiaren makurrerietara eragiten dietenak. Honelako txerren gaizkileak olerkariak ere ezagutu zituzten. Sokrates-ek bera ere holako gogo batek aholkatu eta gidatzen zuela erakusten zizun. Hortik ateratzen dute aztiek gauza kaltegarri eta barregarriak egiteko ahalmena. Ostanen eurotariko nagusienak Jaungoiko egiazkoaren irudia ezindela ikusi dio eta benetako aingeruak haren alki-ondoan daudela. Horretan Platon ere bat dator. Jaungoiko bakarra ezagutu eta besteei aingeru edo demon deritze. Hermes Trismegisto-k, berdin, Jaungoiko bakarraz dihardu, ulertezina eta neutrezina dela aitortuz.

7.-Gogook dira jainkoen irudi eta harrietan ostentzen direnak. Eurok iradokitzen diete aztiei beren atsez, eurok azterkatzen dute abereen erraietan, hegaztien hegada zuzentzen, zoria erabiltzen, iragarkiak gertatzen, egia gezurrearekin nahasten; euren buruak eta inorenak iruzurretan jausierazten dituzte horrela, bizia nahaspiltzen, amets gaiztoak ekartzen, gorputzetan ezkutuka sarturik gogoak izutu egiten dituzte, soin-atalak bihurritzen, osasuna galtzen, eritasunak erakartzen, haiek gurtuerazteko eta horrela, opalmahaietako lurrinez eta erre-oparien odolaz aseturik bezala, lehengo estutasun eta larrial-

diak urrundu dituztelakoaren itxurak egiteko. Iruzurra bukatu eta horra nolako sendaketak dagizkiten. Gizonak Jaungoikoagandik urrutiratzea beste asmorik ez dute eta egiazko erlijioaren bidetik euren sineskerietara ekartzea. Eta eurak zigorpean daudela eta, zigor-lagunak nahi dituzte, gezur-bidez haien gaiztakeriaren kideak bilatuz. Alabaina, egiazko Jaungoikoaren izenean dei eginez gero, gugandik urrun daitezke eta beretutako gorputzetatik irtetera behartuak dira, aitormena eginez. Ikusiko dituzu, gure ahots eta otoitzez, ezkutuzko ahalmenaren zigorrak jota, suak erreta, dorkien oinazearen indarrez apurtuta, uluka, zizpuruka, erreguka eta beren gurtzaileen aurrean erre nondik datozen eta nora dihoazen esaka. Horrela delarik, edo berehalaxe dihoaz ihesi edo geldika ezkututzen dira, jasaten dituenaren sinesmenaren arauera edo osatzen duenaren indarraren neurrian. Horregatik darakarte lagunabarra gurekiko gorrotora, gizonak gu ezagutu aurretik gorrota gaitzaten, ezagutuz gero gure idekoak ez daitezen edo gu galtzeko gai ez daitezen beldurrez.

8.-Bakarra da, beraz, Jaungoikoa, guztion jabea. Halako handitasunak ezin du kidekorik izan, harengan bakarrik bait dago ahal guztia. Jaungoia aginteari buruz lurretik ere har dezagun adibidea. Agintearen banaketa noiz hasi da leialki edo noiz ez da amaitu odolik gabe? Tebano haiek anaitasuna apurtuta, hil eta gero ere ezinikusiak jarraitu zuen, hobi banatan jarriak bait ziren. Erromatar bizki haiek ere ez ziren aginterri batean elkartu, sabel baten barruan ziren arren. Ponpeio eta Zesar, senitartekoak izanik ere, ez zuten gorde sortzetikako batasuna aginte-lehiaketan. Ez zaitezela gizonaz harritu horregatik, hortan izatea batera dabil orotan. Erleen artean bat da errege, abereetan bat gidari eta abere-taldeetan ere bat buru egiten duena. Arrazoi handiagoz dugu munduan zuzendari bakarra, direnak oro bere hitzez atondu, adimenez antolatu eta ahalmenez burutzen dituenak.

9.-Ikustezina dugu, ikustea bera baino argiago bait da. Ukiezina, ukimena baino garbiago da eta. Ohartezina, zentzumenak baino areago bait da. Benetan Jaungoikotzat hartzen dugu, ulertezina deritzagunean. Nolako jauretzea eduki lezake Jaungoikoak, lurbira osoa beraren etxea bada? Eta gizona egotez leku zabal batean delarik, etxetxo batek barruan sartuko ote dugu

halako handitasuna?Gure gogoetan behar dugu gurtu eta gure bihotzetan agurtu.Ez diezaiogula izenik asmatu Jaungoikoari;Jaungoikoa bait du izena.Kopuru handia deitura bereziekin banandu behar denean,ordu antxe bai,hitzen beharrean arkitzen gara.Jaungoikoari,bakarra denez gero,Jaungoiko izena dagokio.Bat bakarra eta nonnahi osorik dagoena.Herriak berak askotan Jaungoikoa aitortzen du berez,buru-bihotzak egile eta jabeaz ohartzen direnean.Sarri entzuna dugu:Ene Jaungoikoa,Jaungoikoa lekuko,Jaungoikoari goraintzi egiten diot,Jaungoikoak ordainduko dit,Jaungoikoaren nahia,Jaungoikoari nahi dakiona!Hauxe gaitzakeriaren handia,ezezagun ezin izan dena ezagutu gura ez izatea!

10.-Kristo zer den eta beraren bidez salbabidea noiz etorriko zaigun,hona hemen erakusbide eta erakusgarria:Lehenengo judeguk zuten Jaungoikoagan grazia.Zintzoak ziren antxina eta beren antxinakoek ere erlijio hari jarraitu zioten.Horregatik haien aginterria handi egin zen eta haien jatorria bikain.Gero,ordea,egosgogorak bilakatu ziren eta arbasoen handitasunaz harropuztuta,Jaungoikoaren aginduak ezetsi eta emandako eskerra galdu zuten.Haien erlijiotik atetiko biziera eta hautsitako erlijio-legeari egin iraina eurak erakusten digute,mingainez ez arren,ukan zuten ondorenez.Atzerrian deslai eta alde rrai dabilta.Beren zeru-lurretatik erbestaturik,arrotz-herrietan batera eta bestera,

11.-Lehendik ere esana zuen Jaungoikoak aldiak aurreratu-ahala,munduaren azkena hurbiltzean,bere gurtzaileak,askoz ere zintzoagoak aukeratuko zituela jatorri,herri eta toki guztietakoak.Jaungoikoaren emankortasunetik errukia ardietsiko zutela,hartu ondoren erlijioari uko eginez judeguk galdu zutena.Esker-irakaspenok zabaltzeko banatzaile nagusia Jaungoikoaren Seme-hitza bidalia izan zen,lehenagoko garaietan iragarleen bidez gizadiaren argitzaile eta irakasletzat aurkeztua.Horra Jaungoikoaren ahala,adimena,jakituria eta aintza.Neskatxa batengana jaitsi zen,Espiritu Sainduak gizondu zuen.Jaungoikoa gizonarekin bat eginik.Hauxe dugu guk Jaungoikoa eta Kristo,bioen bitarteko,gizonaz jantzi eta Aitarengana eramango duena.Kristok gizaki nahi izan zuen,gizona ere Kristo dena bilaka dadin.

12.-Bazekiten judeguk Kristok etorri behar zuela.Iragarleen ahoz beti agindua izan zitzaien eta.Alabaina,bitariko etorreraz ziharduten eta,bata gizabizigarri eta erakusgarria,bigarrena Jaungoiko beza la agertzekoa,lehenengo etorrera nekaldian igaroa ez zuten ulertu eta ospez agertuko dena baizik ez dute sinesten.Eta judeguen herriak hau ulertu ez egitea,haien bekatuen zorra da.Jakintzaz eta ulermenez gabetuak zeuden,bizitzaren duin ez izanik,begi aurrean ukan zuten eta ez zuten hura ikusterik.

13.-Era horrtan,iragarleek lehen esanen arauera,Kristok hitz bat esanez gizonengandik deabruak jaurtitzten zituenean,elbarrituak osatu,legenardunak garbitu,itsuak argitu,herrenak ibilierazi,hildakoak berbiztu,izadi-indarrak bere menpera ekarri,haizeak bere esanetara jarri,itsasoei men eragin,infernuakmakurtuerazi zituenean,Judeguk haragi eta soin ezerezei begiratuki gizon hutsa jotzen bait zuten,azti ahaldun bat bailitzan hartzen zuten.Haren irakasle zirelakoek,hau da,hark irakaspen eta jakitez garaitu zituenak,haserre-suminez,azkenean Pontzio Pilato

ri eman zioten.Hain zuzen ere,garai hartan Erromatar agintez Siria-n zegoen jaurlari.Eta ainitz eska bide eta nehatxuz gurutzean hil zezan lortu zuten.

14.-Horrela jokatu behar zutela berak iragarri zuen eta iragarle guztien aitorrak aurretik esan zuen Hark oinazeak ikusiko zituela,ez heriotza jasateko moduan,heriotzari gehiago egiteko baizik.Eta nekaldia igaro ondoren berriz zeruratuko zela,Jaungoiko handitasuna norainokoa zen erakusteko.Gertakariak sinesgaia egiaztatu zuten.Gurutztatzatua izan zen,bada,eta borraruari eretik eman gabe,bere oldez hil zen eta hiru egungarrenean berriro hilen arte tik biztu zen,berak nahita.Zen bezalakoxea agertu zitzaien ikasleei eta haiek zekusatela ageriko egin zen,bere baitango soin-izate egiazkoarekin.Berregi egunez geratu zen haiekin,berberak bizi-irakatsietan eskolatzeko eta erakutsi behar zutena ikas zezaten.Orduan hodei batean bilduta zerura igo zen maitatu,jantzi eta heriotzatik gorde zuen gizona Aitaren ondoan garaile jartzeko.Zerutik etortzekoa dugu,deabrua zigortzeko,gizadia epaitzeko,aspertza ile-zuzentasunarekin eta epaikari-eskuarekin.Irakasle-Jaungoikoak aholkaturik,ikasleak munduan bar-

rena zabaldu ziren, salbabiderako irakatsiak eman, ilunpe-okerretik argibidera eraman eta itsu-ezjakinak egiaren ezagupidean argitzeko.

15.-Eta Kristo-rekiko erakutsi-aitorpena hala-holako eta badaezpadakoa ez zedin, oinazetan, gurutzetan eta askotariko neke-minetan erasoak izan ziren. Egiazkoaren lekuko den oinazea ematen zaie, Kristo Jaungoikoaren Semea, gizonak biziarazteko emana, ahots hutsez gabe martiri-agiriaz aintzaldia izan zedin. Hauxe dugu laguntzat eta aurrelaritzat, hauxe gure bide-erakuslea, argi-emailea, salbagilea, bere bilatzaile eta sinesteei zerua eta Aita agintzen dizkiena. Kristo-ren jarraitzaile bagara, Kristo bera dena izango kristauak ere.

Urteak eta urteak direla egina nuen itzulpen hau. Gaur, bat-batean, ateratzea bururatu zait. Zun/zuen, erri/herri eta horrelako ikutu-aldaketa batzu egin eta hor doa, orrazketa gehiagorik gabe. Bazko-eguneko oparitxo bezala hartuko al dit Goi-koak eta Aberri-eguneko lagungarritzat ingurukoek.

IZENEN BILABIDEA

MELIKERTES: Atamante eta Ino-ren semea; Ino amak zoraldi batez burua itsasora bota ondoren, semearekin batera murgilduz, noski, biak itsasoko jainkoen artean onartuak izan ziren. Beste izen batzu ere hartu zituen Ino horrek; bat, Leukotea.

Jolas Istmikoak Melikertes (Palemon, Portuno)-en ohoretan atondu ziren.

KASTOR eta POLUX: Zeus eta Leda-ren semeak. Afareoren semeekin borrokan hil eta Kastor-ek hauxe lortu zuen Zeus-engandik: anaiarengandik banatzean, egunak bat Infernuetan eta beste bat Olinpo-n, txandaka, igarotzea.

ESKULAPIO: Kiron-en menpean aita Apolo-k jarrita, medikuntza ikasi zuen. Eta gaixoak osatu ez ezik, hildakoak ere bai bizten omen zituen. Zeus-ek, haserre, oineztarri batez hil zuen.

Gizon heldua, bizarduna eta onbera bezala irudikatu ohi zuten, eskuan makila bat eta makilean suge bat karabilkaturik.

HERKULES (grekoen artean HERAKLES): Hainbat neke-lanetan ibili ondoren eta gorabehera askoren ondoren barneko sutan irakinez, Oeta mendian biztutako sugarretatik Olinporaino jaso zuen Atenea-k.

ADMETO: Tesalia-n, Feres-ko erregea. Apolo zerutik aterea, bederatzi urtez aritu zen Admeto-ren abere taldeak bazkatzen.

NEPTUNO: beronen zeregina laisterketa-zelaia eta zaldiak zaintzea.

LAOMEDONTE: jainkoen laguntzari esker jaso zituen Troia hiriaren harresiak; baina gero ordainik eman gura ez eta oinazeturik hil zuten.

JUPITER: erromatarren jainko nagusia.

SATURNO: Jupiter-en aita. Jupiter-ek zeru aldetik botata eta Jano-k Latium-en atotsi zuen.

JANO: ateen eta lehioen jagolea; urtearen eta hasiera ororen jainkoa.

URTARRILA: Janus > Januarius > Enero. Gure euskarazko URTATS-ek ere urte-hasierarekin du zer ikusia.

PAVOR et PALLOR: latinez IZUA eta ZURBILA; halere aldatu gabe utzi ditut beren izenak, azterketan hasiz gero inguruko erdara guztietan errazago bilatzearen.

AKA (ACCA LARENTIA): Faustulo artzainaren emaztea; Romulus eta Remus hazi zituen.

FLORA (LOREA): Loreen eta lorategien jainkosa erromatarra; maiatzleheneko bere jaiak aski lizunak izaten ziren.

ESCANSO: latinez "scando" aditzak igo esan nahi du.

FORCULO: latinez "fores" ateak.

LIMENTIO: "limen" latinez ataria.

KARDEA: "cardo" (ate)-orpoak latinez.

ORBONA: seme-alaba berriak gura zituzten gurasoek otoi egiten zioten. "Orbus" = semerik gabekoa.

PENATEAK: idolo erromatarrak, etxearen zaindariak. Estatua Erromatarrak ere bazituen bere Penateak, Troia errean Eneas-ek bilduak eta Erromaratuak. Vesta-ren jauretxean zeuden.

PENATEAK LATIUM-era ERAMANAK

Mittitur et magni Venulus Diomedis ad urbem,
 Qui petat auxilium et Latio consistere Teucros, 10
 Advectum Ænean classi victosque Penates
 Inferre et fatis regem se dicere posci
 Edoceat multasque viro se adjungere gentes
 Dardanio et late Latio increbrescere nomen.

(P. Virgilius; "Aeneidos Liber VIII, vv: 9-14)

Benul bialtzen dute Diomede aundiaren urira lagungarri ta urgazle billa; iragar dezala, ortarako, teukrotarrak nola zeuden Lati'n, Enea'k ontzidi baten etorririk nola sartu zitun bere jainko garaituak, eta zoriak ere, ziotenez, nola eskatzen zun bera erregetzat; asko dirala dardanitar giz-ure-nari erantsiz dioaztenak, eta uraren izen-ospea zabal bai zabal dabillega Lati osoan;

(itzulpena: Aita Onaindia; "Bergili-ren idazlanak osorik"; Bilbao, 1966)

LATIUM izenaren JATORRIA

Is genus indocile ac dispersum montibus altis
 Composuit legesque dedit Latiumque vocari
 Maluit, his quoniam latuisset tutus in oris.

(P. Virgilius; "Aeneidos Liber VIII, vv: 321-3)


Enda ezigantz mendate itinguetan banandu au arexek eratu zun aurrenik, lege-barru bizi izaten erakutsiaz; orrezaz gain, toki oni Lati deitzea nai izan zun, berak lurralde etan aurkiu zulako batez ere gordeleku segurua.

(itzulpena: Aita Onaindia; ibidem)

INO-MELIKERTES ITSASOAN PULUNPATU
ETA JAUNGOIKOEN ARTERATU.

occupat hunc (uires insania fecerat) Ino,
seque super pontum nullo tardata timore
mittit onusque suum; percussa recanduit unda.
At Venus inmeritae neptis miserata labores
sic patruo blandita suo est: 'O numen aquarum,
proxima cui caelo cessit, Neptune, potestas,
magna quidem posco, sed tu miserere meorum,
iactari quos cernis in Ionio inmenso,
et dis adde tuis! Aliqua et mihi gratia ponto est,
si tamen in medio quondam concreta profundo
spuma fui Graiumque manet mihi nomen ab illa.
Adnuit oranti Neptunus et abstulit illis,
quod mortale fuit, maiestatemque uerendam
inposuit nomenque simul faciemque nouauit
Leucotheëque deum cum matre Palaemona dixit.

(Ovidius; "Metamorphoseon Lib.IV, vv:528-42)



PERTSONAIAK ETA GAIAK

| | <u>orrialdeak</u> |
|---|-------------------|
| Alejandro Handia..... | 10 |
| Andre Maria..... | 14 |
| Bazko-Berbizkundeak..... | 15 |
| Benus..... | 11 |
| Bruto..... | 12 |
| Deabrudunak sendatzea..... | 13 |
| Eneas..... | 11 |
| Erresumen gorabeherak..... | 11 |
| Erromatarren jainkoak..... | 11 |
| Espiritu Santua..... | 14 |
| Jaungoikoa-nolakotasunak..... | 13 |
| Jainkoak(lehenengo) gurtzea nondik..... | 10 |
| Kanas..... | 12 |
| Kontsulgoa..... | 11 |
| Latium..... | 10 |
| Pilatos..... | 15 |
| Platon..... | 12 |
| Ponpeio..... | 13 |
| Sabindar emakumeen atxiloketa..... | 11 |
| Sokrates..... | 12 |
| Zesar..... | 13 |

Nemo amat patriam suam
quia magna, sed quia sua.

(Seneca: "Epistulae", 66)

... ..
Aberri baten saminez
urduri dabil eñija.

(Lauaxeta: "Mendigoxaliarena",
ARRATS-BERAN; Bilbo, MCMXXXV)

Hunc igitur comitamur, hunc sequimur, hunc
habemus itineris ducem.

(Zipriano de una)